

Guraso agurgarriak:

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok zuengana zuzentzen gara datorren azaroaren 30ean eta abenduaren 14an deitu ditugun bi greba egunen berri emateko baita zuen babesa eskatzeko ere. Bi greba egun hauen helburua joan den irailaren 14an aurkeztu zen hezkuntza legearen aurreproiektuarekiko gure desadostasuna azaltzea eta gure eskaerak plazaratzea da, behin betiko lege-aurreproiektuan zein ondorengo Hezkuntza Legean eragin eta eskaera horiek jasoak izateko.

Izan ere, hiru sindikatuok EAeko Hezkuntza lege-aurreproiektuaren zirriborroa aztertuta, egungo hezkuntza-eredu duala betikotu eta gainditze bidean jartzen ez duela baloratu dugu. Eta sare publiko bakar, euskaldun eta propiorako bidea egin beharko lukeen legea behar dugula uste dugu, sare publikoa baita aukera-berdintasuna, kohesio soziala eta euskalduntze prozesua bermatu behar dituen.

Hauek lirateke gure ustetan bide hori egiteko txertatu beharreko aldarrikapenak:

1. Publikoa ardatz izango duen hezkuntza legea nahi dugu.
2. Segregazioari aurre egin eta gizarte kohesioa bermatuko duen legea nahi dugu.
3. Publikazio-marko eta araudi orokor eta adostua ezartzea nahi dugu.
4. Hezkuntza lege propioa nahi dugu.
5. Inbertsio eta baliabide nahikoa izango dituen hezkuntza legea nahi dugu.
6. Euskara erdigunean jarriko duen Hezkuntza legea nahi dugu.
7. Betebehar eta kontrol mekanismo zehatzak dituen legea nahi dugu.
8. Hezkuntza sistema osatzen dugun langile guztion enplegua eta lan baldintza egokiak bermatuko dituen legea nahi dugu.
9. Merkatuen interesen gidaritzatik eta enpresa pribatuen negozio esparrutik at egongo den hezkuntza legea nahi dugu.
10. Hezkuntza lege parte-hartzailea nahi dugu, langileak aintzat hartuko dituen.

Gure hezkuntza sistemaren etorkizunarekiko gure kezka partekatzen duzelakoan, azaroaren 30ean eta abenduaren 14an deitu ditugun bi greba egunekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu baita egun horietan egingo diren mobilizazioetan parte hartzera ere. Mobilizazioak 18:00etan gauzatuko dira Donostian Alderdi Ederren, Bilbon Gran Via 85ean eta Gasteizen Legebiltzarrean.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan,

